

9. IBILBIDEA

BERMEOTIK ZUGASTIETARA


Irteera-puntua	Bermeoko tren-geltokia
Helmuga-puntua	Zugastietako (Muxika) Informazio-Puntua
Ibilbidea	Bermeoko tren-geltokia – Askatasun Bidea – Artike Bidea – Tribis Errota – Urkiobe – Larrazabala Baserria – Iturbe – Alarbin Goiko – Busturia – Osinbaltzaga Goikoa – Jandonipe Baserria – Metxikas Auzoa – Elorrietalanda Baserria– Madalen Auzoa – Altonaga Pozueta – Gerekiz – BI-2121 Errepidea – BI-4137 Errepidea – Suberta – Bilau Basoa – Kanterea – Gorozika - BI-635 Errepidea – Zugastietako tren-gelokia/Zugastietako Informazio-Puntua
Distantzia (km)	37,4
Pilatutako desnibel positiboa (m)	900
Gutxi gorabeherako iraupena	3 h 30 min
Bizikletentzako Bidea	100 %
Norantza	Norantza bakarra % 100
Zoru-mota	Bidea/Pista % 52,5, Bide asfaltatua/Zementua % 15,4, Errepidea % 32,1
Zailtasun-maila	Oso handia
Bestelako informazioa	<p>Busturialdearen edertasun guztia erakutsiko digun ibilbide lineala. Proposamen hori oso interesgarria da, eskualdea osoa hegoaldeetik iparraldera trenez zeharkatzen baita, eta iparraldek hegoaldera bizikletaz. Euskotrenen Zornotza-Bermeo linean trenez joatea gomendatzen dugu, Zugastietako geltokitik (autoz joaten bagara, bertan aparkatuko dugu) Bermeoko geltokiraino. Tren-bidaiaren iraupena 40 minutu da. Kontu handia izan beharko dugu Metxikas auzoan solte dauden txakurrekin. Behar adina ur eramán.</p> <p>Ibilbide honen irteera puntua Bermeoko geltokia da. Bermeoko kaleetan barrena Artika auzorantz goazela, Tribisko erroterra iritsiko gara (bidegurutzea eta 8. ibilbidearekiko lotura-puntua). Puntu horretan bide asfaltatua hartuko dugu Busturiako mugartean. Bidea aldapa gogorrek hasten da eta, Ezkiaga eta Urkiobe baserrietatik igaro ondoren, Larrazabala baserriaren inguruetara iristen da. Bidegurutzean aurrera jarraituta, Busturiako San Bartolome auzorantz jaisten hasiko gara. Iturbe etxearen paretik igaro eta jaitsiera laburra egin ondoren, ur araztegiaren ondoan</p>

Arriatara izeneko bide txiki bat hartuko dugu eskuinetara. Bide horretan berrehun metro inguru ibili ondoren, eta etxe txiki batetik igaro ostean, arrainaren eta ardoaren ibilbidearekin egingo dugu topo ezkerretara. Ibilbide horrek Aldarbingoikoa auzora eramango gaitu (jaitsiera teknikoa). Bertan eskuinetara egin eta Muruetatik Arrietarako errepidea hartuko dugu. Errepide horretatik 1,5 kilometro inguru ibili ondoren, ezkerretara egingo dugu bihurgune itxi batean (Jandonipe/Metxikas kartela).



Bertatik abiatuta, inguruko lekurik ederrenetako batetik igoko gara Metxikas auzora doan errepidera iritsi arte. Metxikas auzoaren barruan, pista eroso batetik jaitsiko gara Elorrietalandaraino, eta, eskuinetara jo eta aldapa gogorra igo ondoren, eskuinetatik jarraituko dugu. Pista horretatik, Madalen auzoa igaro ondoren, BI-3213 errepideraino jaitsiko gara. Ezkerreko errepidea hartu eta 50 metro ibili ondoren, bidegurutze batean eskuinetara egingo dugu. Ondoren, ezkerretara dagoen pista hartuko dugu. Tarte horretan, Gernika-Lumoren bista zoragarriak izango ditugu. BI-121 errepidera iritsi arte, bi burdin langa dituen pistatik doa ibilbidea.

Errepidera iristean, ezkerretara joko dugu Gernika-Lumorantz, eta ehun bat metro ibili ondoren, eskuinetara egingo dugu BI-3751 errepidetik. Berehala bidegurutze batera iritsiko gara eta, Gerekiz baserriaren eta astialdigunearen artean BI-4173 errepidera iritsiko gara. Eskualde errepide horrek Zubizarreta auzora eramango gaitu. Auzo hori igaro ondoren, ezkerreko pista hartu eta Gorozika auzora iritsiko gara. Amaitzeko, Zornotza eta Gernika lotzen dituen BI-635 errepideraino jaitsiko gara, eta ezkerretara hartuta, 600 bat metrora Zugastietako geltokira iritsiko gara.

ERDA, Y A UNOS 600 METROS ENCONTRAREMOS LA ESTACIÓN DE ZUGASTIETA.



PERFIL



IRTEERA PUNTUA: BERMEOKO GELTOKIA (BIZKAIA)
HELMUGA PUNTUA: ZUGASTIETAKO GELTOKIA (BIZKAIA)
IBILBIDEA: BERMEOKO GELTOKIA - ASKATASUN BIDEA - ARTIKE BIDEA -
URKIOBE - LARRAZABALA BASERRIA - ITURBE - ALARBIN GOIKO - BUSTURIA - OSINBALTZAGA GOIKOA -
JANDONIBE - METXIKA AUZOA - ELORRIETALANDA BASERRIA - MADALEN AUZOA - ALTONAGA
POZUETA - GEREKIZ - BI-2121 ERREPIDEA - ZUGASTIETAKO GELTOKIA.
KM: 37,4 - **METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA:** 900 M - **IRAUPENA, GUTXI GORABEHERA:** 3 H 30 MIN
BIZIKLETENTZAKO BIDEA: 100% - **NORANZKO BAKARRA:** 100% - **ZORU MOTA:** PISTA/BIDEA 52,5%
BIDE ASFALTATUA: 15,4% ERREPIDEA 32,1% - **ZAILTASUN MAILA:** OSO HANDIA.


BUSTURIALDEAREN EDERTASUN GUZTIA ERAKUTSIKO DIGUN IBILBIDE LINEALA. PROPOSAMEN HORI OSO INTERESGARRIA DA, ESKUALDE OSOA HEGOALDETIK IPARRALDERA TRENEZ ZEHARKATZEN BAITA, ETA IPARRALDETIK HEGOALDERA BIZIKLETAZ. EUSKOTRENEK ZORNOTZA-BERMEO LINEAN TRENEZ JOATEA GOMENDATZEN DUGU, ZUGASTIETAKO GELTOKITIK (AUTOZ JOATEN BAGARA, BERTAN APARKATUKO DUGU) BERMEOKO GELTOKIRAINO. TREN BIDAIAREN IRAUPENA 40 MINUTU DA (INFORMAZIO GEHIAGO EUSKOTRENEK - WWW.EUSKOTREN.ES). KONTU HANDIA IZAN BEHARKO DUGU METXIKAS AUZOAN SOLTE DAUDEN TXAKURREKIN. ETA BEHAR ADINA UR ERAMAN BEHARKO DUGU.

IBILBIDE HONEN IRTEERA PUNTUA BERMEOKO GELTOKIA DA. BERMEOKO KALEETAN BARRENA ARTIKA AUZORANTZ GOAZELA, TRIBISKO ERROTARA IRITSIKO GARA (BIDEGURUTZEA ETA 8. IBILBIDEAREKIKO LOTURA PUNTUA). PUNTU HORRETAN, BIDE ASFALTATUA HARTUKO DUGU BUSTURIAKO MUGARTEAN. BIDEA ALDAPA GOGOR BATEKIN HASTEN DA ETA, EZKIAGA ETA URKIOBE BASERRIETATIK IGARO ONDOREN, LARRAZABALA BASERRIAREN INGURUETARA IRISTEN DA. BIDEGURUTZEAN AUERRERA JARRAITUTA, BUSTURIAKO SAN BARTOLOME AUZORANTZ JAISTEN HASIKO GARA. ITURBE ETXEAREN PARETIK IGARO ETA JAITSIERA LABURRA EGIN ONDOREN, UR ARAZTEGIAREN ONDOAN ARRIATARA IZENEN BIDE TXIKI BAT HARTUKO DUGU ESKUINETARA. BIDE HORRETAN BERREHUN METRO INGURU IBILI ONDOREN, ETA ETXE TXIKI BATETIK IGAROTZEAN, ARRAINAREN ETA ARDOAREN IBILBIDEAREKIN EGINGO DUGU TOPO EZKERRETARA. IBILBIDE HORREK ALDARBINGOIKOA AUZORA ERAMANGO GAITU (JAITSIERA TEKNIKOA). BERTAN ESKUINETARA EGIN, ETA MURUETATIK ARRIETARAKO ERREPIDEA HARTUKO DUGU. ERREPIDE HORRETATIK 1,5 KILOMETRO INGURU IBILI ONDOREN, EZKERRETARA EGINGO DUGU BIHURGUNE ITXI BATEAN (JANDONIBE/METXIKAS KARTELA).

BERTATIK ABIATUTA, INGURUKO LEKURIK EDERRENETAKO BATETIK IGOKO GARA METXIKAS AUZORA DOAN ERREPIDERA IRITSI ARTE. METXIKAS AUZOAREN BARRUAN, PISTA EROSO BATETIK JAITSIKO GARA ELORRIETALANDARAINO, ETA, ESKUINETARA JO ETA ALDAPA GOGOR BAT IGO ONDOREN, ESKUINETATIK JARRAITUKO DUGU. PISTA HORRETATIK, MADALEN AUZO IGARO ONDOREN, BI-3213 ERREPIDERAINO JAITSIKO GARA. EZKERREKO ERREPIDEA HARTU ETA 50 METRO IBILI ONDOREN, BIDEGURUTZE BATEAN ESKUINETARA EGINGO DUGU. ONDOREN, EZKERRETAN DAGOEN PISTA HARTUKO DUGU. TARTE HORRETAN, GERNIKAREN BISTA ZORAGARRIAK IZANGO DITUGU. BI-2121 ERREPIDERA IRITSI ARTE, BI BURDIN LANGA DITUEN PISTA BATETIK DOA IBILBIDEA.

ERREPIDERA IRISTEAN, EZKERRETARA JOKO DUGU GERNIKARANTZ, ETA EHUN BAT METRO IBILI ONDOREN, ESKUINETARA EGINGO DUGU BI-3751 ERREPIDETIK. BEREHALA BIDEGURUTZE BATERA IRITSIKO GARA ETA, GEREKIZ BASERRIAREN ETA ASTIALDIGUNEAREN ARTEAN EZKERRETARA JO ONDOREN, PISTA ESTU BATEAN SARTUKO GARA. PISTA HORI AMAITZEAN, BI-4137 ERREPIDERA IRITSIKO GARA. ESKUALDE ERREPIDE HORREK ZUBIBARRIETA AUZORA ERAMANGO GAITU. AUZO HORI IGARO ONDOREN, EZKERREKO PISTA HARTU ETA GOROZIKA AUZORA IRITSIKO GARA. AMAITZEKO, ZORNOTZA ETA GERNIKA LOTZEN DITUEN BI-635 ERREPIDERAINO JAITSIKO GARA ETA, EZKERRETARA HARTUTA, 600 BAT METRORA ZUGASTIETAKO GELTOKIRA IRITSIKO GARA.

EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO PLAKAK ○ BU015
EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO ZUTOINEAK □ BU192



GOGOAN IZAN - ERABILI KASKOA - ERRESPETATU OINEZKOEN LEHENTASUNA ETA ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK - ERRESPETATU IBILBIDEEN SEINALEAK ETA ZIRKULAZIO NORANZKOA - EUSKADIKO BTT ZENTROAK EZ DIRA ZIRKUITUEN OKERREKO ERABILERAREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ERABILITZAILEEN ZUHURTZIAGABEKERIEKIN ERANTZULE ERE - GALDUZ GERO, GOGOAN IZAN SEINALEAK ZENBAKI BATEKIN KODETUTA DAUDELA. DEITU HARRERA PUNTURA ETA/EDO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATERA, ETA JAKINARAZI ZENBAKIA - TXIRINDULARITZA FEDERAZIOAREN BITARTEZ FEDERAZIOAREN LIZENTZIA ATERATZEA **GOMENDATZEN DUGU** (ESKATU INFORMAZIOA EUSKADIKO BTT ZENTROKO LANGILEEI).
EZ AHAZTU - SEINALERIK EZ BADAGO, JARRAITU LEHENTASUNEN BIDEK - BAKARRIK IBILI BEHAR BADUZU, ADIERAZI ZER IBILBIDE EGINGO DUZUN HARRERA PUNTUAN - IRITEN AURRETIK, AZTERTU BIZIKLETAREN EGOERA ETA JASO DENBORARI ETA IBILBIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA - EZ AHAZTU URA, KONPONKETA OSAGARRIAK ETA SAKELAKO TELEFONOA ERAMAN BEHAR DITUZULA - EZ GUTXIETSI IBILBIDEEN ZAILTASUN TEKNIKOK, ETA AUKERATU IBILBIDEAK ZURE GAITASUN TEKNIKOAREN ETA FISIKOAREN ARABERA.
KONTUZ - KONTUAN HARTU IBILBIDEAKO BASO LANAK ETA NEKAZARITZA LANAK - KONTU HANDIA IZAN EHIZA GARAIAIN - ERRESPETATU INGURUA - ERRESPETATU ITXITURAK, ETA ITXI BERRIZ IGARO ONDOREN. ERRESPETATU ZONA PRIBATUAK ETA KULTURA ETA ONDARE INGURUNEAK - ERRESPETATU NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA BASO JARDUEKIN, INGURUKO BIZTANLE ASKOREN LANBIDEA BAITA - ERRESPETATU INGURUMENA, INGURUKO BIZTANLEAK ETA ANIMALIAK. EZ EGIN ZARATARIK. ERRESPETATU INGURUKO LASAITASUNA, HEGAZTIK HABIAK EGITEN DITUZTEN LEKUEKIN BEREZIKI - EZ BOTA PIZTUTA DAGOEN ZIGARRONKIN ETA POXPOLLURIK; AXOLAGABEKERIA HANDIA DA, ETA OSO ARRISKUTSUA - EZ BOTA ZABORRIK MENDIRA. UTZI JOLAS AREETAN EDO HERRIETAN DAUDEN EDUKIONTZIETAN.
GOZATU NATURAZ ZARATARIK ETA PRESARIK GABE.

IBILBIDE 9 - BERMEOTIK ZUGASTIETARA